

JESUS ETA BERE JARRAITZAILEAK

1

Herririk herri dei ta dei baten
hor dabil Nazaretarra,
eta sortzen dau bere aurrean
azkar erantzun-beharra.

2

Emon baietza edo ezetza,
ez dau behartzen sekula;
baina kontuak ondo atera,
ez da ahuntzaren eztula.

3

Behin gizon batek pozez dinotso:
"Jarraituko deutsut, Maixu".
-"Ez dot etxerik, ez dot dirurik,
emoten deutsut abixu".

4

Beste bateri dei egin eutson;
-"Itxoin, Maixu, aita hil jat"
-"Dana itzita, gaur ez bazatoz,
ez zara gauza Niretzat".

5

"Ni ere, Maixu, Zurekin nator,
-gazte batek bero-bero-
itxoin pixka bat, prest izango naz
danak agurtuta gero".

6

"Behin goldaketan hasita gero,
begira jarri atzera?
Hori ez da duin nire laguntzat,
hobe bihurtu etxera".

7

Jesusek danoi egin deusku dei
gazte, heldu eta zaharrai,
baina gutarik gitxitxo doa
Jesus Maixuaren jarrai.

8

Nor dan Jesusen jarraitzalea
askok egiten dau galde;
han nahiz hemen prest dagona, dana
jokatzeko bere alde.

9

Bateo santuz gu kristau danok
gara bokazinodunak,
baina sortzen dau bokazinoa
bakoitzaren erantzunak.

10

Eskerrik asko, Jesus Maixua,
dei egin deustazulako,
hartu baietza nire aldetik
egiz eta betirako.